

Aro digitaleko ikaskuntzarako estrategia inplementazio-plan batean oinarritzen da

Erakundeak ongi definitutako [gaitasun digitalerako inplementazio-plan](#) errealista bat du, lehentasunak argi ezarrita daude eta helburuak neurtzeko modukoak dira, erakunde modu eraginkorrean hedatu ahal izateko ikaskuntza digitalerako teknologiak, irakaskuntzarako, ikaskuntzarako eta ebaluaziorako plan estrategiko/politika orokor baten testuinguruan.

Planifikazioa erraztaileetan oinarritzen da, eta,aldi berean, oztopoei heltzen zaie

Gaitasun digitala inplementatzeko plana ikaskuntza digitalerako teknologiak integratzeko **erraztaile / bideratzaileetan oinarritzen da** eta kontestualizatzen da, eta, **aldi berean**, egon daitezkeen **oztopoei** heltzen zaie.

Barruko alderdi interesdunek nolabaiteko autonomia dute

Gaitasun digitala inplementatzeko planak **nolabaiteko autonomia eskaintzen die barruko alderdi interesdunei** ikaskuntza digitalerako teknologien inplementazioan, irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako politika global baten edo curriculum-betekizunen testuinguruan.

Pertsonalarentzat aukerak, pizgarriak eta sariak identifikatzen dira

Gaitasun digitala inplementatzeko planak identifikatzen ditu aukerak, pizgarriak eta sariak, ikaskuntza-inguruneak modernizatzeko eta **gaitasun digitala sortzeko** prozesuan aktiboki inplikatzeko den pertsonalarentzat.

Aro digitaleko ikaskuntza lerrokaturik dago lehentasun zabalagoekin

Gaitasun digitala inplementatzeko plana lerrokaturik dago lehentasun zabalagoekin, eta horien artean aukera-berdintasunarekin eta parte-hartzea zabalazarekin, batetik, gizarteko ezberdintasunak arintzeko eta, bestetik, behar bereziak dituzten taldeen, besteak beste ikasle adimentsuen, atzerritarren eta ikasketak behar baino lehenago bertan behera uzten dituztenen, premiei erantzundesegokia emateko arriskua murrizteko.

Helburu bikoitzak daude: lehendik dagoen hezkuntza-hornidura modernizatzea eta aukera berriak eskaintzea

Gaitasun digitala **inplementatzeko planak** barne hartzen du, batetik, **lehendik dagoen hezkuntza-hornidura modernizatze aldera**, ikaskuntza digitalerako teknologiak erabiltzeko beharrezkoa dena eskuratzea eta, bestetik, **aukera berriak eskaintzea** [ikaskuntza formalerako, ez-formalerako eta informalerako](#).